

## ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO IBILBIDE ESPEZIFIKOETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK.

### ATARIKOA

Fomento de San Sebastián, S.A.k (aurrerantzean DS), Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietateak, besteak beste, hiriaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzeko helburua du, batez ere kohesio eta iraunkortasun irizpideei jarraituz, hiriko eragileekin eta haien artean hitzarmena eta lankidetzak lortuz, eta zalantzarik gabe proiektu berritzaileen garapenaren aldeko apustua eginez, hirirako eredu eraldatzaile gisa.

2011tik, Donostiako Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori urtero ezartzeko tresna bat jarri dute, Ekonomia Bultzatzeko Plana.

Tresna horri esker, hiriak herri mailan dituen erronka sozial eta ekonomiko desberdinei aurre egin ahal izan zaie, baina baita maila globalean ere, azken 12 urteetan, bere lehiakortasuna eta posizionamendua handituz.

2022An, talde zaurgarrien (iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, DSBE hartzaileak edo 35 urtetik beherako gazteak, etab.) enplegagarritasuna hobetzeko eta enpleguari laguntzeko egindako apustuan, Donostia Sustapenak 1,7 milioi euro bideratu zituen kontratatzen laguntzeko. Honek hurrengoak eragin zituen: 282 kontratutan (% 66 emakumeei zuzenduta), 508 pertsona orientazio zerbitzuetan artatuak (horietatik 200 pertsona 45 urtetik gorakoak) eta 127 pertsona parte hartzen haien enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza ibilbide ezberdinetan.

2023an, testuinguru sozio-ekonomiko global konplexua gorabehera, hainbat faktorek markatuta (Ukrainiako gerra, inflazioa, etab.), langabeziaren azken urteko bilakaera positiboa izan da hirian (2022ko % 7,9tik 2023ko apirileko % 7,6ra).

Hala ere, tokiko langabeziak kalteberatasun handiagoko kolektiboetan kontzentratzen jarraitzen du: hala, 2023ko apirileko datuekin, Donostian 6.650 langabe daude erregistratuta, eta desoreka dago emakumeen (3.766 langabe, hau da, % 56,3) eta gizonen (2.884 langabe, % 43,7) artean. Hau da, % 1,7ko genero-arakala dago hiriko emakumeen eta gizonen langabeziaren artean.

Bestalde, datuen analisiak adierazten du langabezian dauden pertsona asko iraupen luzeko langabeak direla (% 45,4), eta hori bereziki nabarmentzen da pertsona nagusien eta emakumeen artean.

Aldi berean, Donostiako langabetuen % 59,9 45 urtetik gorakoak dira, horietatik % 57 emakumeak, gehiengoak direnak baita ere langabetuen talde guztietan, 25 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Bukatzeko, datuen arabera, langabeziak eragin handia du tokiko gazteengan, 25 eta 34 urte bitartekoetan bereziki. PRA delakoaren datuen arabera, langabeziak % 11,5 gainditu du talde honetan.

Horiek guztiak talde objektiboak dira, hiriko enpleguaren bilakaera eta biztanleen bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko.

Pertsona horien enplegarritasuna eta lan-merkatuan sartzea sustatzeko, DSk hainbat prestakuntza-ibilbide proposatzen ditu haien kontratazioari laguntzeko, hala nola kontratazio-laguntzen deialdi hau, arlo sektorial jakinetako enpresei zuzendua, “Ostalaritza eta turismoa” eta “Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta komunitatea” lanbide-arloetako prestakuntza-ibilbideetatik datozen eta sektore soziosanitarioei, hotelei eta ostalaritzari lotutako pertsonak hartzeko interesa duten sektoreetako enpresei zuzendua.

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. HELBURUA

Laguntza hauen helburua da egoera ahulean edo gizarte-bazterkerian dauden langabeak laneratzen laguntzea, 6. artikuluan deskribatutako profesionaltasun-ziurtagirietako bat lortzeko prestakuntza gainditu ondoren Donostiako udalerrian kokatutako jarduera-zentroa duten eta “JEZren epigrafeen zerrenda” I. eranskinean jasotako jarduera-sektoreak dituzten sektore soziosanitarioetan, hotel-sektorean eta ostalaritzan diharduten enpresek kontratatuko dituztenak.

### 2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak laguntza horiei BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (250.000€) EURO esleituko zaie. Kantitate hori alda daiteke Donostia Sustapenak hala erabakiko balu.

Pertsona onuradun bakoitzak hiru laguntza jaso ahal izango ditu.

### 3. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat hartuko da dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera egin behar duena edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere oinarri hauetan jasotako baldintzak eta, bereziki, laguntza mota bakoitzari dagozkionak betetzen baditu.

Laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerrikoak, bai eta aurreko horien nortasunik gabeko taldeak ere, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta ordenamendu juridikoaren arabera behar bezala eratuta badaude. Kanpo geratzen dira ondare-sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluen arabera definituta.

Oinarri hauetan, laguntzak eskatzeko beharrezkoak diren baldintzak zehaztuko dira, bai eta horiek egiaztatzeko modua ere. Nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Artikulu hori berariaz ezartzen da aplikagarri dela.

Hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei ezin izango zaie laguntzarik eman:

Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

Dirulaguntzak eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera ukatzen dien ebazpen irmo baten bidez zehatuak izatea, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean egotea, sexu-diskriminazioa egiteagatik zigortuak izan direnak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzari buruzko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta horien onuradun ezin izango dira izan pertsona fisikoak edo onuradunari zehapen administratibo edo penala jaso diotenak sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik dagokion zehapenean ezarritako epean. Era berean, ezin izango dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresek, baldin eta halakorik ez badute, ezta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatu neurririk ezarri dutenik sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera.

Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak izatea.

Aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzuli gabe izatea, itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei prozedura hau ebazteko eta ordaintzeko informazio hau:

- Udalarekin eta Donostia Sustapenarekin egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Onuradunaren eta sustatzaileen Ekonomia-jardueren gaineko Zergaren (EJZ) historikoa
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko unean Udal Diru-bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden onuradunek HAMAR (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko dute betebeharrak hori beteta dutela, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

#### 4. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Zaugarritasun egoeran edo gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden langabeak kontratatzea, Donostiako hirian kokaturiko jarduera zentroa duten enpresetan laneratzea bultzatzeko..

Kontratazioak Donostian kokatuta dauden lantokiei atxikita egon behar dute.

Oinarrizko laguntza **SEI MILA (6.000,00) EUROKOA** da, 6 hilabete edo gehiagoko lanaldi osoko edo lanaldi osoko kontratu mugagabeko lan-kontratu bakoitzarengatik, beti ere hurrengo familia profesionaletako batean Ziurtagiri Profesionala lortu duen pertsona bada: "Ostalaritza eta turismoa" eta "Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearekiko zerbitzuak", arlo soziosanitarioari, hotelei eta ostalaritza sektoreari dagozkienak eta "JEZ epigrafeen zerrenda"l. Eranskinean bildutako jarduera sektorekoak direnak.

**Laguntza beste % 10 areagotuko da** kontratatzen den pertsona hurrengo taldeetako batekoa denean:

- ✓ Iraupen luzeko langabetuak: Lanbide-Enpleguko Euskal Zerbitzuan kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan zehar izena eman dutenak, langabezia 12 hilabete edo gehiago egonaz.
- ✓ Emakumezkoak.
- ✓ Kontratua hastean 45 urte baino nagusiagoak diren pertsonak.
- ✓ DSBE jasotzen duten titularrak.
- ✓ Kontratua hastean 35 urte baino nagusiagoak diren pertsonak.

Profesionaltasun Ziurtagiriak 2023 urtean hasiak izan beharko dute.

3 hilabetetik gorako eta lanaldi partzialeko kontratazioetarako diru-laguntza (laguntzaren gehieneko muga) lan egindako lanaldiaren eta kontratuaren iraupenaren arabera izanen da, eta lanaldi hori ezin izanen da % 50etik beherakoa izan.

Azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonaren soldata eta Gizarte Segurantzaren % 100 baino handiagoa, kontratu bukaerako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota barne, enpresaren kargura, behin dagozkien hobariak eta/edo dedukzioak kenduta.

Laguntza eskatu ondoren jardunaldian egindako aldaketek ez dute ondoriorik izango azken justifikazioaren ondoren igortzen den laguntzaren azken ebazpenean. Izan ere, ezingo baita laguntzaren hasierako emakidaren zenbatekoa baino gehiagokoa izan.

#### 5. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEKIZUNAK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO

Toki entitatetzat hartuko dira pertsona fisiko edo juridikoak, pribatuak, lantokia eta jarduera ekonomikoa Donostiako udalerrian dutenak.

Onuradunak izan daitezke sektore soziosanitarioan, ostalaritza-sektorean edo hotelen sektorean diharduten irabazi asmorik gabeko fundazio, elkarte edo erakunde guztiak, baldin eta horien jarduera-sektoreak "JEZeko epigrafeen zerrenda" izeneko I. eranskineko zerrendan jasota badaude, salbuespen hauekin:

Honako hauek ezin izango dira onuradun izan:

- Sektore publikoko erakundeek % 25etik gorako mendekotasuna duten edo % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak (halakotzat hartzen dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan sartutako erakundeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora lekualdatzen dituztenak, irabazi-asmorik gabeko elkargoen edo elkargoen bidez).
- Aldi Baterako Enplegu Enpresak

## 6. ARTIKULUA. KONTRATATUTAKO PERTSONEN ETA DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTRATUEN BETEKIZUNAK

Kontratutako pertsonen hurrengo **betekizunak bete beharko dituzte**:

- a) Kontratutako pertsonak **lanik gabe eta enplegu eskatzaile gisa izen emanda egon behar dute** Lanbiden-SVE (Servicio Vasco de Empleo). Izen emateko eguna lan-harremanari ekin aurreko eguna baino lehenagoa izango da. Ez dira kontuan izango baldintza hau betetzeari dagokionez, Lanbiden "Zerbitzu eskatzaile" gisa erregistratuta daudenak.
- b) Langabetuak ezingo dira altan egon Gizarte Segurantzaren erregimen batean ere ez, lan harremana hasten den egunaren aurreko egunetik gutxienez.
- c) Kontratutako pertsonak **Donostian erroldatuta egon behar dute** kontratuaren hasierako eguna baino lehenago, gutxienez lan harremanaren hasiera egunaren aurretik. Egun berean eta lan harremana hasi aurreko egunean gutxienez erroldatuta daudela frogatzen dutenak bakarrik izanen dira baliozkoak. Erroldatzeak ez du izan behar Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikulua erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo harekin lotutako beste edozein erakunderekin lotzen den beste edozein pertsona fisikoren helbidea. Halaber, eta baldintza hau betetze aldera, ez dira kontuan hartuko kontratatu beharreko pertsonaren Donostiako aurreko erroldak, berdin diolarik hura etetearen arrazoia.
- d) Kontratutako pertsonen hurrengo espezialitateetako batean pertsona onuradunaren jarduerarekin bat datorren **Lanbide homologatutako ziurtagiri profesionala** gainditu eta lortu behar izan dute:
  - a. **Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzako zerbitzuak**
    - a.1. (SSCS0208) - Arreta soziosanitarioa erakunde sozialetako mendekotasuna duten pertsonen

a.2. (SSCM0108) - Eraikin eta lokaletan gainazalak eta altzariak garbitzea

**b. Ostalaritza eta turismoa**

b.1. (HOTA0108) - Ostatueta solairuen oinarritzko eragiketak

b.2. (HOTR0108) - Sukaldeko oinarritzko eragiketak

Profesionaltasun Ziurtagirien ikastaroak 2023 urtean hasiak izan behar dute.

Langileak Lanbide Ziurtagiri osoa edo, gutxienez, zati teorikoa gainditu duela egiaztatzen duen Prestakuntza Zentroaren ziurtagiri ofiziala egiaztatu beharko da, baldin eta praktiketako zatia laguntza hauen xede den lan-kontratu batekin ordezkaturiko bada.

Lan **kontratazioek** hurrengo betekizunak bete behar dituzte laguntza jaso ahal izateko:

- a) Lan kontratuaren hasiera-data **2023ko ekainaren 1 eta 2023ko urriaren 31 bitartean izan behar da** (SSCS0208) - Arreta soziosanitarioa erakunde sozialetako mendekotasuna duten pertsonen, (HOTA0108) - Ostatueta solairuen oinarritzko eragiketak espezialitateko ziurtagiri pertsonalak dituzten pertsonentzat eta (HOTR0108) - Sukaldeko oinarritzko eragiketak.
- b) Lan-kontratua 2023ko ekainaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasi behar da, profesionaltasun-ziurtagirirako (SSCM0108) - Eraikin eta lokaletan gainazal eta altzariak garbitzea.
- c) Kontratuak 3 hilabeterako iraupena edo gehiago izango dute eta % 50eko lanaldia edo gehiagokoa.
- d) Diruz lagundu beharreko mugagabe-aldizkako kontratuak gutxienez 3 hilabeteko iraupena eta gutxienez % 50eko lanaldia duten gutxieneko betearazpen-aldiak eta lanaldi jarraituak bete beharko ditu, 5. artikuluan jasotzen den bezala.
- e) Kotizazioa diruz-lagundutako aldiaren zehar eta lanaldi minimoarentzat mantendu behar da.

Salbuespen gisa, lan harremana diru-laguntzaren xede den aldia bukatu baino lehen bukatzen bada, arrazoi objektiboak edo enplegatzailetik kanpokoak direla medio, diru-laguntzaren zenbatekoa lan kontratuaren benetako iraupenaren proportzioan murriztuko da.

**Azken justifikazioa aurkezteko gehienezko epea 60 egun naturalekoa izango da, kontratua bukatzen denetik.**

Laguntza justifikatzeko 11. artikuluan zehaztutako dokumentazioaz gain, **hurrengoa aurkeztu beharko du** pertsona onuradunak:

- Gizarte segurantzaren arrazoitutako bajaren ziurtagiria.

Donostia Sustapenak lan harremana aldeztu aurretik bukatzea justifikatzeko beharko den bestelako dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

**Ezingo dira diruz lagundu** hurrengo kontratazioak:

- Oinarri hauetako 6. artikuluan adierazitako iraupena edo lanaldia baino laburragoa duten kontratazioak.
- 2/2014 Foru Arauaren, urtarrilaren 17koa, onuradunarekin Gipuzkoako Sozietateen Gainerako zergarena, 42 artikuluan aurreikusitako baldintzetan lotuta dagoen edozein pertsona fisikoren kontratazioa.
- Ezkontidearen, 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotekidearen, aurreko, ondorengo edo bigarren mailako alboko senidearen, ahaidetasunaren, odolkidetasunaren, ezkontza-ahaidetasunaren, izatezko bikotearen eraketaren edo adopzioaren ondorioz eratutako izatezko bikotearen, pertsona onuradunaren, eta foru arauaren 42. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako moduan onuradun horrekin lotuta dauden pertsonen kontratazioa.
- Ez da onartuko kontratuen baturarik edo metatzerik. Diru-laguntzaren xede den laguntza bakoitzarentzat kontratu bakarra onartuko da.
- Ez da onartuko laguntzaren eskakizunaren ondoren egindako kontratuen luzapenik.
- Lanaldia aldatu zaien kontratuei, hasieran kontratatutako lanaldia luzatzen denean izan ezik. Kasu horretan, ez da aldatuko emandako laguntza.

**7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRITASUNA**

Laguntza hauek ez dira bateragarriak Europar Batasuneko edo nazioarteko beste erakunde batzuetatik helburu eta epe bererako ematen diren beste batzuekin. Edonola ere, indarrean den legeriaren arabera dagokien Gizarte Segurantzaren kuoten murrizketekin edo hobariekin bateragarriak dira.

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako “de minimis” arauak errespetatuko dituzte. Erregelamendu hori 2013ko abenduaren 24ko EBAOn argitaratu zen, laguntza minimoei EBren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa.

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua.

**8. ARTIKULUA. ESKAKIZUNAK ETA AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK**

**Eskabideak aurkezteko epea honako hau izango da:** oinarri hauen iragarkia Diru-laguntzen Nazioko Datu-basean argitaratu eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunetik, laguntza honetara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte, Oinarri hauen 2. artikulua beteaz (kasu horretan, agortze hori Donostiako

Sustapenaren webgunean argitaratuko da) edo, bestela, deialdia itxi arte, hau da, **2023ko abenduaren 31 arte**.

Eskakizunaren epea igarota, soberakinik badago edo zuzkidura ekonomikoa handitzen bada eta Donostia Sustapenak egokia baderitzo, eskakizunaren epea hedatu ahal izango da oinarri hauek aldatuz (kasu horretan, dagozkion kanaletan argitaratuko dira aldaketak).

Eskakizunak telematikoki aurkeztu behar dira Donostia Sustapenaren webgunearen bitartez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Edozein informazio edo galderarako, deitu 943 482800 zenbakira edo idatzi [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbidera, eta adierazi gaian: 2023 - ENPLEGU-PRESTAKUNTZA IBILBIDEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

Dagokion eskakizun-formularioarekin batera, Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio guztia bidaliko da.

Eranskinak osorik bete behar dira, eta sinatuta bidaliko dira.

Laguntza ekonomiko horiek eskatzean **interesa zuten enpresa edo entitateek hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:**

1. **“Eskakizuna”** eranskina.
2. **“Bankuko datuak”** eranskina, banku erakundeak zigilatuta, edo bankuaren dokumentu baliokidea.
3. **“Kontratatzeko datuak”** eranskina.
4. Pertsona fisikoa bada, eskatzen duenaren NANren kopia.
5. Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFZ eta, dagokionean, ahalduaren NAN.
6. **Lan-kontratuaren kopia**, hurrengo baldintzak ziurtatzea ahalbidetzen duena: iraupena, lan jardunaldia, lantokia, beteko duen kargua. Mugagabe bihurtu diren aldi baterako kontratuen kasuan, bihurketa hori egiaztatzen duen dokumentua ere gehitu beharko da.
7. **Lan-kontratuaren jakinarazpena**, non beteko den eginkizuna adieraziko den.
8. **Kontratatuak pertsonaren NAN/IFZ.**
9. **“Izen emateko aldietako txostena”** Lanbidek jaulkia, kontratazioa hasi baino lehenagoko datan.
10. **Langilearen Gizarte Segurantzako Lan Bizitza osoa**, laguntza eskatzen den kontratuaren hasierako dataren ondoren igorria.
11. Donostiako Udalak jaulkitako **Errolda-ziurtagiria** kontratuaren subjektua kontratatu den eguna baino beranduago, edo Donostiako Sustapenera kontratatutako pertsonaren baimena eskatu ondoren. (“Kontratazio-datuak” Eranskinaren barne dator).

12. **Profesionaltasun ziurtagiria gainditu izanaren** titulua edo akreditazioa, laguntza hauek zuzentzen diren espezialitateetako batean, Lanbidek homologatutako lanbide heziketako ikastetxe batek igorritako 6. artikuluan bildutakoak.
13. **Hurrengo taldeentzat, gainera, hurrengo ere aurkeztu beharko da:**
  - a. Kontratututako pertsona iraupen luzeko langabetua denean: **“Lanbidek jaulkitako izen emate eta lan egoera aldien inguruko txostena”** kontratazio dataren aurreko 18 urteetako egoera biltzen duena.
  - b. Kontratazioa Titularrek edo Diru Sarrera Berme Errentaren onuradunek egiten badute, **egoera hori ziurtatuko duen Lanbidek jaulkitako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.**

Interesdunek aldeztu aurretik dokumentu horietakoren bat aurkeztu badute Donostia Sustapenaren laguntza-programaren batean parte hartzeko, 2018aren ondoren, ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriz aurkeztea, indarrean segitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Diru-laguntza eta ordainketa guztiak eskatzean Udal Dirubilketa, Foru Ogasuna eta/edo Gizarte Segurantzaren egunean ez dituzten erakundeek egiaztatu egin beharko dute betekizun hori beteta dutela, eta, horretarako, Donostiako Sustapenak zuzenketa-jakinarazpena bidaliko du.

Onuradunak bere gain hartuko du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa, bai eta informazio guztia eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa ere.

## 9. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia aztertu ondoren egiaztatzen bada ez dagoela beteta edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko zaio **hamar (10) egun balioduneko** epean dokumentazioa falta dela zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera hori baztertu egingo dela, beste izapiderik egin gabe, eta, ondorioz, ezezko ebazpena emango dela. Gainera, egoki irizten dionean, Donostia Sustapenak eskubidea izango du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako edozein dokumentu edo informaziori buruz egoki irizitako argibide guztiak eskatzeko.

Onuradunak harremanetarako mezu elektroniko gisa ematen duen posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dira zuzenketak. (JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Nolanahi ere, jakinarazpenak web-aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Balitzko zuzenketak egiteko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egin zen bide beretik aurkeztuko da. Ez da onartuko posta elektronikoz egindako zuzenketarik.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak berariazko ebazpen arrazoitua emango du, oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

## 10. ARTIKULUA LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Eskaerak erregistroan sartu ahala ebaluatuko eta ebatziko dira, baliabideak agortzen diren arte.

Eskatutako laguntzaren ebazpena eskatzeko epea sei hilabetekoa izango da eskakizunaren erregistroa egiten den egunetik. Ez dira epe honetan sartuko administrazioako dokumentuak zuzentzeko aldiak, eta epe horietan eten egingo da. Laguntza ematearen ebazpena ezarritako epean ez igortzeak ez du esan nahi hura emango denik.

Eskakizuna ebazteko, Donostia Sustapenak aurkeztutako nahitaezko dokumentazioa aztertuko du. Eskatu gabe aurkeztuko den gainerako dokumentazio guztia ez da aztertu beharko laguntza ebazteko.

Eskatzaileak eskakizunean adierazi beharko ditu zein igoera aukeratu nahi dituen. Donostia Sustapenak erabakiko du eskatzaileak eskatutako igoerarako baldintzak betetzen dituen ala ez, eta ez da behartuta egongo eskakizunaren eranskinean adierazi ez den igoerarik kontuan izatera.

Laguntza emateko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak ebazpen espresua eta arrazoitua emango du, oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei Eskakizunaren Eranskinean “Jakinarazpenen Helbide Elektronikoa” eremuan adierazitako helbidean, eta eskuragarri egongo dira webgunean ere, entitate edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen. Gainera, onuradunen zerrenda argitaratuko da,

Deialdi honi buruzko jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingen dira, eskabidean adierazitako helbide elektronikoaren bidez, eta, gainera, web orrian egongo dira eskuragarri, entitate edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Emandako ebazpenarekin desadostasunik izanez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira hilabeteko epean, ebazpena ematen den egunetik hasita, eta Donostia Sustapenak erabakitakoari jarraituko zaio. Bi aldeak, hala badagokio, Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Era berean, aurrekonturik ez izateagatik diru-laguntzarik gabe geratu diren pertsona fisiko edo juridikoak baldin badaude, Donostia Sustapenak eskabideen zerrenda bat sortuko du erreserban, erregistratzeko eta sartzeko ordenaren arabera, etorkizunean aurrekonturik izanez gero, laguntza eskaini ahal izateko.

## 11. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA LAGUNTZEN ORDAINKETA

Honela ordainduko dira laguntzak:

Diruz lagundutako kontratazioa justifikatu ondorengo ordainketa bakarra.

**Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea 60 egun naturalekoa izango da**, diru-laguntzaren xedearen epea bukatzen denetik. Epe horretan eskakizunaren ondoren igorritako ebazpenean sartuko da. Aldez aurreko bajen kasuan (6. atalean azaldutakoak), azken

justifikazioa aurkezteko epea 60 egun naturalekoa izango da kontratuaren bukaeraren benetako azken datatik hasita.

Ezarritako epeak beteko ez balira, laguntza ukatuko da.

Hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du onuradunak:

1. **Lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua**, kontratatutako pertsonak laguntza eskatzen den aldian zehar enpresan irauten duela egiaztatzeko.
2. Kontratatutako pertsonaren kotizaziorako datuen txostena - Besteren kontuko langilea (**IDC**), justifikazio aldi osoarentzat.
3. **Justifikazioaren eranskina**.

Dokumentuak telematikoki aurkeztu behar dira. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikanteak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

## 12. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Laguntza hauen onuradunek Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak hartuko dituzte beren gain, eta, oro har, berariazko betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

1. Laguntza diruz lagundutako jarduerak egitera zuzentzea.
2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztea, zehaztutako moduan eta epean..
3. Jasotako laguntzak erabili direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, egiaztatzeko eta/edo ikuskatzeko, eta, betiere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean.
4. Proiektuaren xede diren jardueren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatzea.
5. Kontabilitate liburuak behar bezala erabiltzea, horretara behartuta dagoenean.
6. Zerga obligazioak eta Gizarte Segurtasuneko obligazioak egunean izatea.
7. Sustapenari jakinaraztea egoera ororen aldaketa, bai subjektiboa bai objektiboa, laguntzak emateko kontuan izan dena.
8. Sustapenak, emandako laguntzekiko bere funtzioak egikaritzen eskatuko dion informazio guztia ematea.
9. Donostia Sustapenari jakinaraztea xede berarekin jasotako beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak.
10. Jasotako laguntzarekin lotuta Donostia Sustapenak antolatutako jardunaldietan parte hartzea (Proiektuak, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
11. Donostia Sustapenari jakinaraztea laguntzaren xede zen eskakizunean aurkeztutako baldintzaren bat aldatzen denean. Donostia Sustapenarekin lan egitea, hala badagokio, finantza kontroleko jardunetan eta edozein egiaztapenetan, eta haren eskura jartzea eskatu ahal zaion informazio eta dokumentazio guztia.

12. Laguntzaren xedea den jarduera egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
13. Oinarri hauetako 3, 5 eta 6 artikuluetan adierazitako baldintzak
14. EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanaz) komunikazio-euskarrietan (web-a, gizarte-sareak, emailing-ak, megafonia, eta abar...), sustapen- eta hedapen-materialak editatzea, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan hizkuntza erabiltzea...
15. Entitate eskatzaileek aholkularitza zerbitzua eskatu ahal izango diote Donostiako Udalaren Euskara zerbitzuari (gehienez hilean 1.000 karaktere itzultzea eta 9.000 karaktere zuzentzea), zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>) diren bitartean.

### 13. ARTIKULUA. ITZULKETA

Onuradunak jaso duen laguntza eta diruaren legezko interesa itzuli beharko ditu —emandako kopuruak ordaindu diren unetik—, kasu hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak larriki eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; emandako edozein datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentazio faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza guztia edo zati bat desbideratzea, aurreikusitako helburuetarako ez bada.
- Laguntzaren xedea Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea eta behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin daitezkeen egiaztatze- eta ikuskatze-lanei aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo kontserbazio-betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo helburu bererako beste edozein administrazio, erakunde publiko edo elkartetatik datozen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak.
- Jarduera gehiegi finantzatuz gero, gastatu gabeko edo gainfinantzatutako zenbatekoa.

Dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta, horretarako, Donostia Sustapenak egiaztatu eta onuradunari bidali beharko dio, ondoren deskribatutako baldintzetan, oinarri honetan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela.

Itzulketa laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari burofax bidez artikulua honetan aurreikusitako itzulketa-arrazoiren bat badago.

Aipatutako itzulketa-arrazoiren bat egonez gero, onuradunak kobratzeko eskubidea galduko du, hala badagokio, ordaindu gabe gera daitezkeen zenbatekoak kobratzeko.

Nolanahi ere, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren baldintzak uneoro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak horiek itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuan, hala nola datuak faltsutzea edo jasotako laguntza osoa edo haren zati bat desbideratzea,

Donostiako Sustapena SAK ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko eta, hala badagokio, jasotako kopuru guztiak itzultzea aukeratzeko, bai eta jasotako zenbatekoaren boskoitza ordaintzeko ere.

## 14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da ematen dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, eta Donostiako Udala izango dela tratamenduaren arduraduna, eta Donostia Sustapena S.A.k kudeatzen duen informazioa izango dela tratamenduaren arduraduna.

Tratamenduaren helburua laguntza eskaera tramitatu eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoan egindako misio bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko: Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo eskabideetan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa nahitaez eman beharko da, eta ez bada behar bezala hornitzen edo datu okerrak ematen, eskaera ezin izango da kudeatu.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak erakunde nazionalen edo nazioz gairik entitateen alde laga ahal izango dira, baldin eta laguntza horiek kofinantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori beharrezkoa denean, eta soilik haien kontzesioa kudeatzeko.

Era berean, aditzera ematen da laguntzak emateak pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinarazi edo lagatzea ekarriko duela, eta emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan argitaratuko direla.

Ez dago aurreikusirik hirugarrenentzako datu-komunikazio gehigarririk, legezko betebeharra izan ezik, eta ez da aurreikusten nazioarteko datu-transferentziarik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak behar den denboran gordeko dira bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Ukitutakoek datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuan (Easo kalea 41, 20006 Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezalako arreta eman ez badizute, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. Sol., 01008 Gasteiz. Hala ere, aurretik eta aukeran, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariekin harremanetan jar zaitezke: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

## 15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

### Indarra sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Eskabidea aurkezteak berarekin dakar oinarriak oso-osorik onartzea.

### Erantzukizunetik libratzea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jardueren ondorioz edo jarduera horren ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

## 16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak oinarri hauetan jasotako arauen arabera arautuko dira, eta, osagarri gisa, DLOn eta hura garatzeko Erregelamenduan jasotako arauen arabera (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, DLOren Erregelamendua onartzen duenak, aurrerantzean DLO), baina soilik DLO horretan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazio-printzipioei dagokienez, hori guztia DLOren 3.2 artikuluaaren bigarren paragrafoari jarraiki (artikulu horrek aplikazio hori zehazten du).

Bestela, DLO eta DLOren erregelamendu horiek bakarrik aplikatuko dira oinarri hauek legezko testu horietara espresuki jotzen dutenean.

Donostian, 2023ko uztailaren 24ean

**Marisol Garmendia Beloqui.**

Ekonomiako, Bertako Enplegurako eta Ekologiako zinegotzi ordezkaria.

## I. ERANSKINA

### OSTALARITZA

#### ☐ 67. taldea Janari-zerbitzua.

1. 671. MULTZOA. JATETXEETAKO ZERBITZUAK
  - 671.1. epigrafea - Bost sardexkakoak.
  - 671.2. epigrafea - Lau sardexkakoak.
  - 671.3. epigrafea - Hiru sardexkakoak.
  - 671.4. epigrafea - Bi sardexkakoak.
  - 671.5. epigrafea - Sardexka bakarrekak.
2. 672. MULTZOA. KAFETEGIAK
  - 672.1. epigrafea - Hiru kizarakoak.
  - 672.2. epigrafea - Bi kizarakoak.
  - 672.3. epigrafea - Kikara bakarrekak.
3. 673. MULTZOA. KAFE-ETXEA ETA TABERNAK, JANARIAREKIN EDO JANARI GABE.
  - 673.1. epigrafea - Katgoria berezikoak.
  - 673.2. epigrafea - Bestelako kafe-etxe eta tabernak.
4. 676. MULTZOA. TXOKOLATE, IZOZKIEN ETA HORTXATA DENDEN ZERBITZUAK

### HOTEL-ZERBITZUAK

#### ☐ 68. taldea Ostatu zerbitzua.

1. 681. MULTZOA. HOTEL ETA MOTELETAKO OSTATU ZERBITZUA.
2. 682. MULTZOA. OSTATU ETA PENTSIOETAKO OSTATU ZERBITZUA.
3. 683. MULTZOA. ARROZTEGI ETA APOPILO ETXEETAKO OSTATU ZERBITZUA.
4. 684. MULTZOA. APARTAMENTU ETA PENTSIOETAKO OSTATU ZERBITZUA.
5. 685. MULTZOA. HOTELAK EZ DIREN OSTATU TURISTIKOAK.

### SOZIOSANITARIOA

#### ☐ 95. taldea Arreta eta zerbitzu sozialak.

1. 951. MULTZOA. ARRETA ETA ZERBITZU SOZIALAK HAURRENTZAT, GAZTEENTZAT, GUTXITU FISIKOENTZAT ETA AGUREENTZAT, EGOITZETAN.
2. 952. MULTZOA. ARRETA ETA ZERBITZU SOZIALAK HAURRENTZAT, GAZTEENTZAT, GUTXITU FISIKOENTZAT ETA AGUREENTZAT, EGOITZAK EZ DIREN ZENTROETAN.